

NIRE SALMENTAREN ENTSEGUA

SALMENTAREN KANPO BEGIRADA



Abentájate enpresarekin eta enpresarentzako diseinatutako formazioa da. Dramatizazio munduaren eta salmenten munduaren arteko lotura pragmatikoan oinarriturik sortutako formazioa bat da. Gaur egun, on line erosketak merkatua handitu du eta honek, komertzioaren merkatuari ez dio batere laguntzen. Internet sarea, komertzioa eta ostalaritza ordezkutzen ari da, horren ondorioz, garrantzitsua da bezero bakoitzarekin harreman egoki bat eraikitzea. Hau da, komertzio arrunta eta on line erosketak parekatu ezker, komertzio arruntak bezeroari opa diezaiokeen harreman zuzena eta tratu paregabea da bere balio eskaintza interesgarriena. Gaur egun, zuzeneko salmenta, salmenta bikoitza bihurtu da, bezeroak produktua erosteaz gain, momentu atsegin bat partekatzea nahi duelako.

Antzerkilariok, pertsonaiak sortu eta interpretatzerakoan, antzeztu nahi dugun pertsonaiarekiko erakarpina sentitu beharra daukagu; nola bihurtu pertsonaia baten, transmititzen digun emozioa desatsegina bada? Gure ofizioak, emozio horri buelta emateko giltza dauka. Propiotzat dugun gaitasun honek, rol desberdinak geureganatzen erakusten digu eta gure solaskideak esker onez aditzen.

Apropox-ek bezeroekiko harremana lantzeko, interpretazio-teknika egokiena aukeratu eta **“Nire salmentaren entsegua”** sortu du. Parte-hartzaileek salmentak entseatzen dituzte eta haien trebetasunak ezagutu, gaitasun pertsonalak aztertu eta, psikodramaren diziplinarekin, norberaren gaitasunak biderkatu egiten dira eta bizitza ere hobetzen da.

Mamia:

Mendebaldeko pentsaera aldatzen ari da, dagoeneko lan-taldeetan, aniztasuna, mestizajea eta sentimendu positiboa, bultzatu eta txalotzen da. Enpresek hainbat lekutan aurkitu dute irizpide berri hauek lantzeko diziplinak; yoga, mindfulnessa, konstelazio sistemikoak, rolen klasifikazioa eta abar luzea dago. Diziplina guzti horiek, antzinatek, antzerkia lantzeko erremintak izan dira eta orain, Apopoxek diziplina guzti horiek ardatz izanik eta interpretazioaren aitzakia erabiliz, partaideen jakintza birziklatu eta sena garatzen du.

Komertzioaren sektoreak bizitako eskarmentuarekin, pertsonon jokamoldeak zinez landu ditu eta honek, era berean gorputzaren memorian barneratuta dauden lotsak eta epaitua izateko beldurrak ere garatzen ditu. Salmenta bati aurre egiteko antzerkia erabiltzen da, irudimenak bultzatuta gorputza, burua eta senak, ordu arte izandako eskarmentuari men egiten dio. **Nire Salmentaren Entseguaren** prozesuak, saltzaileen eskarmentua babesten du, partaideei antzerki irizpideak, egiteko erak eta ezaugarriak transmitituz. Egitarauaren lehen mugimendua, partaideei gaur egun bezeroek suspertzen dizkieten enbarazuak identifikatu eta mugitzen dizkieten emozioak entzutean datza. Konfidentzialtasun giroan barneratuta dendari eta ostalarientzako deserosoak diren bezeroen paperak antzeztuz, pertsonaiara gerturatzen dira, bere izaera eta jokamoldeak ikertu eta partaideek ekintza honekin, errailetan sentitzen dute bezero deseroso honen afektua.

Baldintzak eta Eskakizunak:

- Nire Salmentaren Entsegua merkataritza eta ostalari autonomo edo enpresa txikientzako sortutako prozesua da.
 - o “Jatetxe-arloko zerbitzua” modulua ikasten ari diren ikasleentzat.
 - o “Merkataritza jarduerako teknikaria” modulua ikasten ari diren ikasleentzat.
 - o Profesionalki aritzen diren langile edota enpresak.
 - o Komertzio eta Ostalaritza elkarteak.
- **Nire Salmentaren Entsegua** prozesuan erabiltzen den teknika berria dela eta, zerbitzua bultzatu eta aberasteko asmoz, eskertzekoa da, deia egin duen entitateko arduradun batek Nire Salmentaren Entsegua prozesua zuzenean bizitzea
- Prework bidez, aurretiko lana egiten da eta partaideek gorputz, buru eta arima prestatzen dute.
- Formazioaren lehen zatia, espazio txukun eta itxi baten izan behar da, giro konfidentziala lortzeko, askatasunez adierazteko, antzezteko ... ondoren, antzezteko behar izango dugun materiala dagoen lekura gerturatuko gara, edo materiala bertaratu.

Onurak:

- Taldea sendotu. Parte hartzaileak entitate berdinen kide izan ez gero, formazioak haien arteko harremana sendotzen du. Antzerkia elkar bizi izan ondoren, hitz egiteko era aldatzen da eta aurrera begira, trebe sentitu ez gero, haien aldetik ikertu ditzakete haien zailtasunak.
- Rolak garatu. Eszenak egiterakoan, partaideek haien rola kanpotik begiratzean, hobariak eta oztopoak nabarmentzen dira eta beste rol batzuk landuta, abantailak irabazi ditzaketela konturatu. Haien burua, gorputza eta anima babesteko egin behar dituzten aldaketak barneratzean, jardunean dituzten pisuak arintzen dituzte.
- Enpatiaren esan nahiak, larru-azaletik bizi eta errailetan tokia hartzen du.
- Gaizki egiteko aukera dagoela argitzen da.
- Maitasuna eta salmentaren arteko harremana, ezagutu eta neurtu.



Antolaketa:

- Luzapena: 4 ordu eta $\frac{1}{2}$ < 6 ordu. .
- Saio bakoitzaren luzapena: Ordu 1 eta $\frac{1}{2}$ edo 2 ordu.
- Antolatzaile eta bideratzaileak batzar baten bueltan azaltzen dira taldearen idiosinkrasiak eta martxan jartzeko ereduak.

Egitarauaren bermatzea:

- **Nire Salmentaren Entsegua** prozesua sortzeko, antzerkiaren alor desberdinetatik jaso da materiala eta teknika nabarmenena psicodrama da:

Taldean egiten den terapia da, pazienteak bere patologia eszenaratzean datza. Iurgi Etxebarria psicodramatistak, antzerkiaren jakintzaz batu eta **Nire Salmentaren Entsegua** prozesua sortu du.

- Prozesua sortzeko, Grupo Ventas ([link Grupo Bentas, https://www.grupobentas.com/bentadrama/](https://www.grupobentas.com/bentadrama/)) eta Abentajate ([Link https://abentajate.es/](https://abentajate.es/)) profesionalen eskutik egin da.
- Prozesuan barneratuta, aldi oro, partaideen arreta ziurtatzen da, guztiok bat eginik goazela sentitzeko eta prozesuan eginiko lana barneratzeko.
- Egitarauaren prozesua bizirik mantentzeko, ikastaldi bakoitzaren ondoren balorazioa egiten da, bai partaideekin baita antolatzaileekin ere.

Materiala:

- Apropoxen esku gelditzen dira ariketak burutzeko materiala.
- Antolatzaileen esku geratzen da, eszenak egiteko behar den materiala, salmentarako beharrezkoa dena.

Zuen inguruan, hemen azaltzen diren ikasgaiak sendotu beharra sentitzen baduzue, jo gugana. Zuen zalantza, gure jakin-mina da, konpromiso gabe, oraindik guztion artean eragin behar ditugun ikasgaiei buruz hitz egiten ari gara.